

2024

Euskal Autonomia Erkidegoa

Aurrekontu Orokorrak

Presupuestos Generales

Comunidad Autónoma de Euskadi



02. Segurtasuna

02. Seguridad

Polizia eta larrialdietako euskal akademia

Academia vasca de policía y emergencias

Euskal zibersegurtasun agentzia

Agencia vasca de ciberseguridad

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


2024

Euskal Autonomia Erkidegoa

Aurrekontu Orokorrak

Presupuestos Generales

Comunidad Autónoma de Euskadi



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:
<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2024ko urtarrila / 1a, enero 2024

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Ekonomia eta Ogasun Saila / Departamento de Economía y Hacienda

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Aurkibidea / Índice :

02-SEGURTASUNA	
02-SEGURIDAD	6
Sekzioaren eta programen memoriak	
<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	7
Gastuen egoera-orria	
<i>El Estado de Gastos</i>	57
1228 BEM Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa	
<i>MRR Mecanismo de Recuperación y Resiliencia</i>	58
2211 Segurtasuna. Egitura eta Laguntza	
<i>Estructura y Apoyo de Seguridad</i>	59
2221 Trafikoa	
<i>Tráfico</i>	64
2223 Ertzaintza Zerbitzuan	
<i>Ertzaintza en Servicio</i>	68
2225 Euskal Zibersegurtasun Agentzia	
<i>Agencia Vasca de Ciberseguridad</i>	81
2231 Larrialdiei aurre egitea	
<i>Atención de Emergencias</i>	82
4611 Hauteskundeak	
<i>Procesos Electorales</i>	85
5512 Meteorologia eta Klimatologia	
<i>Meteorología y Climatología</i>	87
6113 Joko eta Ikuskizunak	
<i>Juego y Espectáculos</i>	89
Sarrerren egoera-orria	
<i>El Estado de Ingresos</i>	91
2211 Segurtasuna. Egitura eta Laguntza	
<i>Estructura y Apoyo de Seguridad</i>	92
2221 Trafikoa	
<i>Tráfico</i>	93
2223 Ertzaintza Zerbitzuan	
<i>Ertzaintza en Servicio</i>	94
2231 Larrialdiei aurre egitea	
<i>Atención de Emergencias</i>	96
6113 Joko eta ikuskizunak	
<i>Juego y Espectáculos</i>	97
Gastuen laburpenak	
<i>Resúmenes de Gastos</i>	98
Sarrerren laburpenak	
<i>Resúmenes de Ingresos</i>	118
ORGANISMO AUTONOMOAK	
ORGANISMOS AUTÓNOMOS	120
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	
<i>Academia Vasca de Policía y Emergencias</i>	121
ENTE, SOZIJETATE ETA FUNDAZIO PUBLIKOAK	
ENTES, SOCIEDADES Y FUNDACIONES PÚBLICAS	150

Euskal Zibersegurtasun Agentzia

Agencia Vasca de Ciberseguridad..... 151



02-SEGURTASUNA
02-SEGURIDAD



Sekzioaren eta programen memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas

SEGURTASUNA

SEGURIDAD

SARRERA

Sail honi dagozkion egitekoak eta lanak bi Dekretu hauek ezartzen dituzte: Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen; eta urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretua, Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa:

Segurtasun Saila Eusko Jaurlaritzaren organo bat da eta hari berez dagozkion jardun-arloak hauek dira:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Ertzaintza.
- b) Herritarren Segurtasuna.
- c) Hauteskunde - Administrazioa.
- e) Jokoa, posturak eta ikuskizunak.
- f) Segurtasun arloko transmisioak eta komunikazioak.
- g) Poliziaren ibilgailuak.
- h) Meteorologia.
- i) Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.
- j) Legeek eta araudiek eman diezazkioketen gainerako ahalmenak

Aurreko artikuluan aipatutako arloen inguruko eskumenez baliatzeko, Segurtasun Saila organo nagusi hauetan dago egituratuta:

- 1) Sailburua.
 - 1.1) Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren Kabinete Zuzendaritza.
 - 1.2) Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren Komunikazio Zuzendaritza.
- 2) Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordea.
 - 2.1) Kudeaketa Ekonomikoaren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritza.

INTRODUCCIÓN

El Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, y el Decreto 6/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Seguridad, configuran las funciones y tareas que corresponden a este Departamento:

El Departamento de Seguridad es el órgano del Gobierno Vasco al que corresponden como áreas de actuación propias las de:

- a) Policía de la Comunidad Autónoma.
- b) Seguridad Ciudadana.
- c) Administración electoral.
- e) Juego, apuestas y espectáculos.
- f) Transmisiones y comunicaciones en materia de seguridad.
- g) Parque móvil policial.
- h) Meteorología.
- i) Dirigir, de acuerdo con las leyes y los reglamentos, las entidades del sector público adscritas o dependientes del Departamento.
- j) Las demás facultades que le atribuyan las leyes y los reglamentos.

Para el ejercicio de las competencias correspondientes a las áreas referidas en el artículo anterior, el Departamento de Seguridad se estructura en los siguientes órganos centrales:

- 1) El Consejero o la Consejera.
 - 1.1) La Dirección del Gabinete del Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad.
 - 1.2) La Dirección de Comunicación del Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad.
- 2) La Viceconsejería de Administración y Servicios.
 - 2.1) La Dirección de Gestión Económica y Recursos Generales.

2.2) Araubide Juridiko, Zerbitzu eta Hauteskundeetako Zuzendaritza.

2.3) Giza Baliabideen Zuzendaritza.

2.4) Telekomunikazioak eta Sistema Informatikoak Kudeatzeko Zuzendaritza.

3) Segurtasun Sailburuordetza.

3.1) Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.

3.2) Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

3.3) Trafiko Zuzendaritza.

3.4) Ertzaintzaren Zuzendaritza.

3.5) Segurtasun Koordinazioko Zuzendaritza.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia Erakunde Autonomoa Segurtasun Sailari atxikita dago, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekeo ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia Segurtasun Sailari atxikita dago, Zibersegurtasunaren Euskal Agentzia sortzeko ekainaren 29ko 7/2023 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Politika horiek arrakastaz burutzeko, 2024an Sailak programa hauek garatuko ditu:

1. Egitura eta Laguntza Programa

Programa horren barruan daude: Lehenengo Lehendakariordea eta Segurtasuneko sailburuaren Kabineteko Zuzendaritza, Lehenengo Lehendakariordea eta Segurtasuneko sailburuaren Komunikazio Zuzendaritza eta Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza.

Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren Kabineteko Zuzendaritza laguntza zuzeneko organo bat da eta haren eginkizunak dira aholkularitza ematea, eta azterlanak eta analisiak egitea. Hari dagokio gizonen eta emakumeen berdintasun arloko politikak egikaritzen laguntzea eta horiek sustatzea, bereziki, Saileko Berdintasun Plana egikaritzen laguntzea; baita gainerako zuzendaritzetako eta erakunde autonomoko planetan laguntza ematea ere.

Era berean, Zuzendaritza horrek Legebiltzarrekiko harremanak bere gain hartzen ditu, eta horregatik legebiltzarreko ekimenei erantzuten die eta beharrezkoa den dokumentazio guztia bidaltzen du, Ganbara horri Sailaren ekintza politikoaren gaineko kontrol-lanak errazteko. Saileko zuzendaritzek ematen dituzten erantzun dokumentatuak beste erakunde publiko batzuetara igortzeaz ere arduratzen da, esaterako, Arartekora, Herriaren Defendatzailerak, etab.

2.2) La Dirección de Régimen Jurídico, Servicios y Procesos Electorales.

2.3) La Dirección de Recursos Humanos.

2.4) La Dirección de Gestión de Telecomunicaciones y Sistemas Informáticos.

3) La Viceconsejería de Seguridad.

3.1) La Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología.

3.2) La Dirección de Juego y Espectáculos.

3.3) La Dirección de Tráfico.

3.4) La Dirección de la Ertzaintza.

3.5) La Dirección de Coordinación de Seguridad.

El Organismo Autónomo Academia Vasca de Policía y Emergencias está adscrito al Departamento de Seguridad, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 21 de la Ley 15/2012, de 28 de junio, de Ordenación del Sistema de Seguridad Pública de Euskadi.

La Agencia Vasca de Ciberseguridad está adscrita al Departamento de Seguridad de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 1 de la Ley 7/2023, de 29 de junio, de creación de la Agencia Vasca de Ciberseguridad.

Para alcanzar con éxito estas políticas, el Departamento va a desarrollar durante 2024 los siguientes programas:

1. Programa Estructura y Apoyo

En este programa se encuentran: la Dirección del Gabinete del Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad, la Dirección de Comunicación del Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad y la Dirección de Régimen Jurídico, Servicios y Procesos Electorales.

La Dirección del Gabinete del Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad es un órgano de apoyo directo con funciones de asesoramiento, estudio y análisis. Le corresponde el impulso y apoyo en la ejecución de las políticas en materia de igualdad entre hombres y mujeres, más en concreto la ejecución del Plan de Igualdad Departamental, así como el apoyo a los restantes Planes de las direcciones y organismo autónomo.

Asimismo, esta Dirección asume las relaciones con el Parlamento Vasco, dándose respuesta a las iniciativas parlamentarias, así como la remisión de cuanta documentación sea precisa en aras a facilitar las tareas de control por parte de la Cámara de la acción política del Departamento. También le corresponde la canalización de las respuestas documentadas de las direcciones departamentales a otras instituciones públicas tales como el Ararteko, Defensor del Pueblo, etc.

Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren Komunikazio Zuzendaritza arduratzen da Segurtasun Sailak hedabideekin dituen harremanak kudeatzeaz eta Saileko Zuzendaritzek egiten dituzten jarduerak herritarrei jakinarazteaz, baita segurtasunarekin eta herritarren babesarekin lotutako baloreak gizartean sustatzen laguntzeaz ere.

Era berean, Sail honi dagokion egoera politiko eta soziala ikuspuntu informatibotik analizatzeko administrazio-organo gisa eratzen da, eta gaurkotasunaren informazioak saileko kudeaketa arloetan duen isla aztertuko du.

Halaber, Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasun sailburuak parte hartzen duten eta Segurtasun Sailaren lana zabaltzeko helburua duten ekitaldi publikoak antolatzeko eskumena duen organoa da.

Funtzionalki Zuzendaritza honen menpe dauden prentsa-zerbitzuak sendotuko dira; izan ere, batetik, eskura jarriko zaizkie komunikazio-tresna desberdinen bidez (prentsa-oharrak, bideoak, audioak, argazkiak, web-orriak, sare sozialak, etab.) multimedia-komunikazioa behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren materialak eta zerbitzu tekniko eta ikus-entzunezkoak. Eta bestetik, zerbitzu horietako profesionali zuzendutako prestakuntza-ekintzak burutuko dira eta, horri esker, Segurtasun Sail osoaren kanpoko behar komunikatibo gero eta handiagoei erantzun egokia, eraginkorra eta efizientea emateko modua hobetzen joan ahal izango da.

2024. urtean hainbat publizitate-kanpaina egingo dira helburu hauekin: trafikiko-portaeren gainean kontzientziatzea eta prebenitzea, Joko eta Ikuskizunen arloko prebentzioa, Ertzaintzarako hautagai berriak erakartzea, eta Euskalmeten, Trafikoren, Ertzaintzaren eta 112ren aplikazioak publizitatzea.

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzari dagokio sailaren jarduera juridikoak koordinatzea. Eginkizun hori betetz, lege-aholkularitzako jarduerak dagozkio, bai eta sailaren programa arauemailea eta gainerako administrazio-prozedurak prestatzea eta izapidetzea ere.

Administrazio elektronikoa, modernizazioa eta berrikuntza lortzeko jarduerak guztiak koordinatu eta sustatuko ditu, baita zerbitzu publikoaren hobekuntzari eta kalitateari lotutakoak ere. Horrez gain, gardentasunari eta datu pertsonalen babesari buruzko araudien inguruan informazio publikoa eskuratzeko jasotako eskaerak kudeatuko ditu.

Sailari atxikitako giza baliabideak kudeatu eta antolatzeaz gain, langileen prestakuntza-planetik eratorritako prestakuntza-ekintzak planifikatzeaz arduratzen da, baita saileko euskara-unitateak zehaztutako esparruan hizkuntza-normalizazioaren plangintza eta jarraipena egiteaz ere. Bere kudeaketa-eremutik kanpo geratzen dira Ertzaintzako langileak eta Saileko segurtasun-administraziooko zerbitzu laguntzaileetako langileak.

La Dirección de Comunicación del Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad es el órgano responsable de gestionar la relación del Departamento de Seguridad con los medios de comunicación social y de dar a conocer a la ciudadanía las actividades desarrolladas por las Direcciones del Departamento, así como de contribuir a difundir en la sociedad valores relacionados con la seguridad y la protección ciudadana.

Asimismo, se erige en el órgano administrativo de análisis, desde el punto de vista informativo, de la coyuntura política económica y social atinente a este Departamento, así como en la prospección del reflejo informativo de la actualidad en las áreas de gestión departamentales.

De la misma manera, es el órgano que tiene atribuida la competencia de la organización de actos públicos en los que participe el Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad y cuya finalidad sea difundir el trabajo del Departamento de Seguridad.

Los servicios de prensa que dependen funcionalmente de esta Dirección se verán reforzados con la puesta a disposición del material y servicios técnicos y audiovisuales necesarios para completar, de manera adecuada, la comunicación multimedia a través de las distintas herramientas de comunicación (notas de prensa, vídeos, audio, fotos, páginas web, redes sociales, etc.) y con la realización de acciones formativas dirigidas a los y las profesionales que los componen, lo que permitirá ir mejorando la manera de dar una respuesta adecuada, eficaz y eficiente, a las crecientes necesidades de comunicación externa del Departamento en su conjunto.

En 2024 se llevarán a cabo campañas publicitarias para la concienciación y prevención de las conductas de tráfico, de prevención en Juego y Espectáculos, de captación de nuevos y nuevas aspirantes para la Ertzaintza, publicitación de las App's del 112, de la Ertzaintza, de Tráfico y de Euskalmet.

La Dirección de Régimen Jurídico, Servicios y Procesos Electorales tiene encomendada la coordinación de las actuaciones de naturaleza jurídica del Departamento. En ejercicio de esta función le corresponden las actuaciones de asesoramiento legal, así como la elaboración y tramitación del programa normativo y del resto de procedimientos administrativos del Departamento.

Coordina e impulsa las actuaciones relativas a la consecución de la administración electrónica, modernización e innovación así como las relativas a la mejora y calidad del servicio público, gestionando además las solicitudes de acceso a la información pública relativas a la normativa sobre transparencia y todas aquellas referentes a la protección de datos de carácter personal.

Es responsable, además de la gestión y organización de los recursos humanos adscritos al Departamento y de la planificación de las acciones formativas derivadas del Plan de formación del personal, incluidas las relativas a la planificación y seguimiento de la normalización lingüística en el marco definido por la unidad de euskera departamental. Se excluye de su ámbito de gestión, el personal de la Ertzaintza y el personal de los servicios auxiliares de la administración de seguridad del Departamento.

Era berean, eginkizun komunak ematen zaizkio antolaketaren arloan, baita erregistro-, artxibo- eta dokumentazio-sistemen arloan ere, sailaren estatistika-organoa barne hartuta.

Amaitzeko, Sailaren barruan, hari dagokio Europar Batasunaren politika eta araudietan esku hartzeari lotutako gaiak koordinatzea.

2. Trafiko Programa

2021-2025 aldirako Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Seguruko eta Iraunkorreko Plan Estrategikoak jasotzen ditu, alde batetik, Euskadin trafiko-istripu baten ondorioz hildako eta larri zauritutako pertsonen kopurua murrizteko urtero aktibatzen diren ekintza eta ekimen batzuk, eta, bestetik, euskal errepide-sareko trafikoaren kudeaketa eta kontrola hobetuko duten irtenbide teknologikoak ezartzea.

Trafiko-istripuek eragindako biktimen Zero Ikuspegiarekin, Planak helburu nagusi hauek ditu: bigarren mailako errepideetan bide-segurtasuna erraztea, bide nagusietako trafikoaren kudeaketa hobetzea, kolektibo kalteberak babestea, portaera desegokiak zuzentzea eta mugikortasun segurua, iraunkorra eta osasungarria bultzatzea; Euskadin ezbehar-tasa murrizteko erronka handiarekin konprometitutako eragile guztiekin koordinatuta eta lankidetzan.

Helburu horiek lortzeko, funtsezkoak dira ardatz estrategikoak gauzatzea: Hezkuntza eta Bide Prestakuntza, Trafikoaren Ikerketa eta Bide Segurtasuna, Trafikoaren Kudeaketa, Zaintza eta Kontrola eta Kudeaketa Aurreratuaren Eredua.

2024ko aurrekontu-ekitaldian, plana betetzen lagunduko duten jarduerak egingo dira. Aipagarrienen artean honako hauek daude:

*Segurtasun Sailaren eta Foru-Aldundien artean trafikoaren eta errepideen arloko lankidetzak-hitzarmenak sinatzea eta bide-segurtasuna hobetzeko bide-informazioa trukatzeko sustatzea.

*Kolektibo kalteberetan istripuak sahisteko sentsibilizazio-programa berriak aktibatzea.

*Garapen teknologikoei ekitea, trafikoko sistema adimendunak berritzeko eta tresna berriak ezartzeko, trafikoaren egoera denbora errealean ezagutzeko eta, horrela, bide-segurtasuna erraztuko duten erantzun-denborak arintzeko. 2024ko aurrekontuan aurreikusita dago hobekuntzak egitea jada ezarrita dauden aplikazio informatikoetan, Era berean, tresna informatikoen beste garapen batzuk aurreikusita daude, araudiaren alorrean eta Trafiko Zuzendaritzaren funtzionamendurako eraginkortasunari dagokionez gerora sortutako beharregatik.

Halaber, funtsezkoa izango da Trafiko Zuzendaritzaren, Ertzaintzaren eta udaltzaingoen arteko lankidetzak, hiriguneetan eta hiriartekoetan zirkulazioaren zaintza eta kontrola sustatzeko, bide-segurtasunaren arloko prebentzioa bultzatzeko.

3. Ertzaintza Zerbitzuan Programa

Asimismo, tiene encomendadas las funciones comunes en materia de organización, sistemas de registro, archivo y documentación acogiendo el órgano estadístico propio del Departamento.

Por último, le corresponde coordinar dentro del Departamento lo referente a la intervención en las políticas y normativas de la Unión Europea.

2. Programa Tráfico

El Plan Estratégico de Seguridad Vial y Movilidad Segura y Sostenible 2021-2025 comprende, por un lado, la activación anual de un conjunto de acciones e iniciativas dirigidas a reducir el número de personas fallecidas y heridas graves como consecuencia de un accidente de tráfico en Euskadi y, por otro lado, implementar soluciones tecnológicas que mejoren la gestión y el control de tráfico en la red viaria vasca.

Con una Visión Cero víctimas por accidentes de tráfico, el Plan plantea como objetivos nucleares, favorecer la seguridad vial en las carreteras secundarias, mejorar la gestión del tráfico en las vías principales, proteger a los colectivos más vulnerables, corregir comportamientos inadecuados e impulsar la movilidad segura, sostenible y saludable, desde la coordinación y colaboración con todos los agentes comprometidos con el gran reto de la reducción de la siniestralidad en Euskadi.

Para la consecución de estos objetivos son fundamentales los ejes estratégicos de ejecución: Educación y Formación Vial, Investigación del tráfico y Seguridad Vial, Gestión del tráfico, Vigilancia y Control y el Modelo de Gestión Avanzado.

El ejercicio presupuestario 2024 estará marcado por actuaciones que favorecerán el cumplimiento del Plan. Entre las más destacadas figuran:

*La promoción de la firma de Convenios de Colaboración en materia de tráfico y carreteras e intercambio de información viaria para la mejora de la seguridad vial, entre el Departamento de Seguridad y las Diputaciones Forales.

*La activación de nuevos Programas de Sensibilización para la prevención de accidentes en colectivos vulnerables.

*El abordaje de desarrollos tecnológicos para la renovación de los sistemas inteligentes de tráfico e implementación de nuevas herramientas para tener un conocimiento del estado del tráfico en tiempo real y poder agilizar así, los tiempos de respuesta que favorezcan la seguridad vial. Señalar que, en el presupuesto del 2024 está previsto realizar mejoras en las aplicaciones informáticas ya implementadas. Así mismo, están previstos otros desarrollos de herramientas informáticas por necesidades sobrevenidas tanto normativas como de eficacia para el funcionamiento de la Dirección de Tráfico.

Clave será también la colaboración entre la Dirección de Tráfico, la Ertzaintza y las policías locales para el fomento de la vigilancia y control de tráfico en entornos urbanos e interurbanos al objeto potenciar la prevención en materia de seguridad vial.

3. Programa Ertzaintza en Servicio

Ertzaintza Zerbitzuan programak zenbait jarduera biltzen ditu, helburu honekin: beharrezkoak diren baliabideak ematea Euskadiko Poliziari, Eusko Jaurlaritzatik datozen politika publikoak garatu ahal izateko eta, horren bidez, oraingo errealitatera egokitutako segurtasun-zerbitzu integral bat lortu ahal izateko, kontuan hartuta herritarrek kontsideratzen dutela zerbitzu hori Administrazio Publikoek betetzen dituzten zerbitzuetako bat dela. Horri lotuta, segurtasun objektibo eta subjektiboaren indizeak igo nahi dira, eta horri begira lan egingo da Ertzaintza eta herritarrak hurbilago egon daitezen.

Ertzaintza Zerbitzuan programa Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzak eta Segurtasun Sailburuordetzak kudeatzen dute, Zuzendaritza hauen bidez:

Kudeaketa Ekonomikoa eta Baliabide Orokorrak.

Giza Baliabideak.

Telekomunikazioen eta Sistema Informatikoen kudeaketa.

Segurtasun-koordinazioa.

2024an gauzatu behar diren ekintzen artean, hauek azpimarratu behar dira:

Euskara Ertzaintzan Erabiltzeko 3. Plana kudeatzea eta haren jarraipena egitea, bai Ertzaintza osoan eragina izango duten neurri orokorrak hartuz eta bai polizia-unitate konkretuetara zuzendutako esku-hartze espezifikoak gauzatzuz.

Euskara Ertzaintzan Erabiltzeko 3. Planaren Komunikazio Plana garatzea.

Berdintasun Plana Garatzea honako elementu hauek zehaztuz: lortu beharreko helburu konkretuak, horiek lortzeko beharrezkoak diren estrategiak eta praktikak, eta arduren banaketa. Horrekin batera, zehaztutako helburuen jarraipen eta ebaluaziorako jarraibideak ezarriko dira.

Giza baliabideak optimizatzeko politikak aplikatzea, garatzea eta bultzatzea, Poliziaren Legearen betekizun guztiak inplementatuz. Horretarako, karrera profesionalaren sistema arautzen duen dekretua indarrean dagoenean, hura aplikatzen jarraituko da, jarduna ebaluatzeko prozesuak eginez eta ohiko aldia planifikatuz. Poliziaren Legea ere garatuko da, fakultatiboen eta teknikarien eskala eta polizia-espezialitateak arautzeari dagokionez. Era berean, egitura eta efektiboak zerbitzu publikoaren beharretara egokitzeko beharrezkoak diren langileak kudeatzeko prozesuak gauzatu dira.

Kontratuen tramitazioan, genero-ikuspegia txertatzen jarraitzea eta baldintza bereziak ezartzea izaera sozialeko kontratuetarako, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duten neurriak aplikatzen laguntzeko.

Aldi baterako enplegua finkatzeko hautaketa prozesuak garatzea eta kudeatzea.

El programa Ertzaintza en Servicio agrupa un conjunto de actuaciones encaminadas a dotar a la Policía del País Vasco de los recursos necesarios para poder desarrollar las políticas públicas de seguridad emanadas del Gobierno Vasco y tendentes a la consecución de un servicio integral de seguridad adecuado a la realidad actual y considerado por la ciudadanía como un servicio público más de los prestados por las Administraciones Públicas, aumentando los índices tanto de seguridad objetiva como subjetiva, para lo cual se trabajará en la consecución de una mayor proximidad entre la Ertzaintza y la ciudadanía.

El programa Ertzaintza en Servicio se gestiona desde las Viceconsejerías de Administración y Servicios y de Seguridad, a través de las siguientes Direcciones:

Gestión Económica y Recursos Generales.

Recursos Humanos

Gestión de Telecomunicaciones y Sistemas Informáticos.

Coordinación de Seguridad.

En 2024 entre las actuaciones a llevar a cabo cabe destacar las siguientes:

Gestionar y realizar el seguimiento del 3. Plan de Uso del Euskera en la Ertzaintza, tomando medidas generales que afectarán a toda la Ertzaintza, así como intervenciones específicas en unidades policiales concretas.

Desarrollo del Plan de Comunicación del 3. Plan de Uso del Euskera en la Ertzaintza.

Desarrollo del Plan de Igualdad, fijando los objetivos concretos a alcanzar, las estrategias y prácticas a adoptar para su consecución, distribución de responsabilidades y estableciendo pautas de seguimiento y evaluación de los objetivos fijados.

Aplicación, desarrollo e impulso de políticas de optimización de los recursos humanos, implementando todos los requerimientos de la Ley de Policía. A tal fin, una vez en vigor el Decreto regulador del sistema de carrera profesional, se continuará con su aplicación mediante la práctica de los procesos de evaluación del desempeño y la planificación del período ordinario. Igualmente se desarrollará la Ley de Policía en cuanto a la ordenación de la Escala de Facultativos y Técnicos y las especialidades policiales. Asimismo, se llevarán a cabo los procesos de gestión de personal que sean precisos para adaptar la estructura y efectivos a las necesidades del servicio público.

En la tramitación de los contratos continuar incorporando la perspectiva de género así como el establecimiento de condiciones especiales de ejecución de los contratos de carácter social que favorezcan la aplicación de medidas que fomente la igualdad entre hombres y mujeres.

Desarrollar y gestionar los procesos selectivos de consolidación de empleo temporal.

Laneko arriskuen Prebentzio Zerbitzu propioa zuzentzea eta kudeatzea, bai zeregin teknikoak eta laneko medikuntzaren zereginak gauzatzeko eta bai asistentzia sanitarioko eta osasun mentaleko zereginak betetzeko, Prebentzio Programak eta Osasuna Sustatzeko Programak ezarri.

Ertzaintzako agenteen defentsa- eta babes-elementuen berriztapen eta hobekuntzarekin jarraitzea, generoikuspegia txertatuz, bai polizia-erabilerako ekipamenduen diseinu berrien azterketan eta bai ekipamendu horiek Ertzaintzaren kolektiboan ezartzen direnean. Horren helburua da poliziaren hurbiltasun handiagoa erakustea herritarrei.

Polizia-ibilgailuak berriztatzeko planarekin jarraitzea, bai autoei dagokienez eta bai aireontzi dagokienez, ibilgailu horiek behar operatiboetara egokitzuz, baliabideak efizientzia handiagoz kudeatuz, erregai fosilekiko mendetasuna murriztuz eta erabiltzaileak aurrezpen eta efizientzia energetikoan parte hartzera bultzatuz. Ertzaintzaren ibilgailuen zibersegurtasun neurriak ebaluatzeko eta ezartzeko sistema garatu egingo da.

Ertzaintzaren Azpiegitura Orokorren Plana garatzen jarraitzea, asignatutako baliabideak optimizatzen laguntzeko xedez, eraikinak, instalazioak, altzariak eta urbanizazioak egokitzeari dagokionez, honako irizpide hauek aplikatuz: jasagarritasuna, efizientzia energetikoa, energia berriztagarriak ezartzea, irisgarritasun unibertsala, hiri-ingurunean integrazioa eta teknologia berriak, informazioaren egokitasuna, irudia, espazioen arrazionalizazioa eta genero-ikuspegia. Hori guztia poliziaren hurbiltasun ereduaren baitan, indarrean dagoen legedia betez eta arreta berezia zuzenduz Jasagarritasun Energetikoaren eta Irisgarritasun Unibertsalaren Legei.

Segurtasun publikoaren digitalizazioaren eremuan, 2024rako Ertzaintza Zerbitzuan programan bildutako jarduerak ekimen hauen arabera sailkatzen dira:

- Sistema Informatikoen eta Komunikazio-azpiegituren hobekuntza eta eboluzio teknologikoen prozesuarekin jarraitzea.
- Informatika Segurtasuneko Plan Zuzentzailearekin eta Informazio-sistemetan zibersegurtasun-politikak ezartzen jarraitzea.

Segurtasun publikoko prozesuen digitalizazioan eta berrikuntza teknologikoa aurrera egitea, honako jardunildo hauekin:

- Mugikortasun-irtenbideak garatzen jarraitzea, Larrialdietako eta Ertzaintzako baliabide operatiboek informazio guztia izan dezaten eta herritarrei ematen zaien erantzunaren eraginkortasuna hobetu dadin.
- Aplikazioak eta zerbitzuak egokitzea, beste erakunde batzuekin integratzeko eta elkarreragiteko.
- Bideoa grabatzeko sistema bat hedatzea Ertzaintzaren unitate guztietan.

Dirigir y Gestionar el Servicio de Prevención propio de riesgos laborales encargado de realizar las tareas técnicas y de medicina del trabajo, así como de asistencia sanitaria y de salud mental, estableciendo Programas de Prevención y Promoción de la Salud.

Continuar con la renovación y mejora de los elementos de defensa y protección de los y las agentes de la Ertzaintza, incorporando una perspectiva de género tanto en el estudio de nuevos diseños en los equipamientos de uso policial como en su efectiva implantación en el colectivo de la Ertzaintza, de cara a conseguir la visualización por parte de la ciudadanía de una policía más cercana.

Continuar con el plan de renovación del parque móvil policial, tanto en lo referido a vehículos como aeronaves, adecuándolo a las necesidades operativas, gestionando los recursos de manera más eficiente, reduciendo la dependencia de los combustibles fósiles y fomentando la participación de los usuarios en el ahorro y eficiencia energética. Se desarrollará el Sistema de evaluación de implementación de medidas de ciberseguridad en los vehículos de la Ertzaintza.

Continuar con el desarrollo del Plan General de Infraestructuras de la Ertzaintza con el objetivo de contribuir a optimizar los recursos asignados en lo relativo a la adecuación de los edificios, instalaciones, mobiliario y urbanizaciones, aplicando criterios de sostenibilidad, eficiencia energética, implantación de energías renovables, accesibilidad universal, integración en los entornos urbanos y a las nuevas tecnologías, adecuación de la información, imagen, racionalización de los espacios y perspectiva de género. Todo ello en el marco del modelo policial de proximidad, aplicando la normativa vigente y con especial atención a las Leyes de Sostenibilidad Energética y de Accesibilidad Universal.

Las actuaciones englobadas en el programa Ertzaintza en Servicio en el ámbito de la digitalización de la seguridad pública para el año 2024 se clasifican en torno a las siguientes iniciativas:

- Continuar con el proceso de mejora y evolución tecnológica de los Sistemas Informáticos y de Infraestructuras de Comunicaciones.
- Continuar con la implantación del Plan Director de Seguridad Informática y con las políticas de Ciberseguridad en los sistemas de información.

Avanzar en la digitalización de procesos e innovación tecnológica en la seguridad pública, con las siguientes líneas de actuación:

- Continuar el desarrollo de soluciones de movilidad para facilitar que los recursos operativos de Emergencias y de la Ertzaintza dispongan de toda la información y mejorar la eficiencia de respuesta a la ciudadanía.
- Adaptación de los aplicativos y servicios para su integración e interoperación.
- Despliegue de un sistema de grabación de vídeo en todas las unidades de la Ertzaintza.

Segurtasun- Koordinazioaren esparruan, egin beharreko jarduera aipagarriak Segurtasun Publikoaren Plana ezartzea eta segurtasun-politikak koordinatzea dira.

4. Larrialdiei Aurre Egiteko Programa

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorrean (2020-2025) jasota dauden eta Larrialdiei Aurre egiteko programaren barruan 2024an egiteko zehaztuta dauden helburu estrategiko nagusien artean hauek nabarmendu behar dira:

1. Koordinazio- eta lankidetzeta-mekanismoak finkatzea, eta horretarako gaur egungo Koordinazio Zentroa larrialdietako adimen-zentro bihurtzea. Zentro hori esku hartzen dabiltzan zerbitzuei berehalako erantzunak emateko gai izango da.
2. Eragindako lurralde bakoitzaren gaitasunak gainditzen dituzten gertakariei aurre egiteko, lurralde arteko jarduketetarako sistema bat antolatzea, sistema arina eta modu bateratuan jarduteko aukera emango duena.
3. Europako entitateekin segurtasunarekin lotutako ikerketa-proiektuetan parte hartzea.
4. Gizarte erresilientzia indartuko duen arriskuen kudeaketarako sistematika bat garatzea eta ezartzea; eta horretarako, larrialdiei aurre egiteko erantzun azkar eta eraginkorrek antolatzea, bereziki, gertatzeko probabilitate txikia daukaten baina inpaktu handikoak diren egoera bereziei aurre egiteko.
5. Eraldaketa digitalak ematen duen hobetzeko aukera aprobetxatzea, tresna berriak ezarritik pertsonen babesa efikaziaz eta efizientziaz handitzeko.
6. Mekanismoa eta kanalak ezartzea herritarrekiko alde biko komunikazio zuzena eta efizientea ahalbidetzeko.
7. Larrialdien eta Meteorologiaren arloan prestakuntza eta zabalkunde, herritarrentzat eta Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemako Zerbitzuetarako.

Horri guztiari genero ikuspegia txertatzen zaio, babes zibilarren eta larrialdien arloan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko, EAEko Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunerako VII. planean jasotako jarduera-ardatzen arabera.

5. Hauteskundeak Programa

Hauteskunde-arloari dagokionez, funtsezko helburua hau da: Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen antolakuntza eta kudeaketa. Horrez gain, euskaldunen ordezkapen politikokoan eragina duten hauteskunde guztien jarraipena egitea dagokio.

2024. ekitaldian ondoko ekintzak aurreikusten dira:

1. Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeak antolatu eta kudeatzea.

En el ámbito de la Coordinación de Seguridad las actuaciones destacables a llevar a cabo se enmarcan en la implementación del Plan de Seguridad Pública y en la coordinación de las políticas de seguridad.

4. Programa Atención de Emergencias

Dentro de los objetivos estratégicos principales del programa de Atención de Emergencias, definidos para llevar a cabo en 2024, recogidos en el Plan General de Seguridad Pública de Euskadi 2020-2025, destacan las siguientes:

1. Consolidar mecanismos de coordinación y cooperación mediante la transformación del actual Centro de Coordinación en un centro de inteligencia de emergencias capaz de ofrecer respuestas inmediatas a los servicios intervinientes.
2. Articular un sistema de actuación interterritorial ágil que permita actuar de manera unificada, ante incidentes que excedan las capacidades de cada uno de los Territorios afectados.
3. Participar con entidades europeas en proyectos de investigación relacionados con la seguridad.
4. Desarrollar e implantar una sistemática de gestión de riesgos que refuerce la resiliencia social articulando respuestas rápidas y eficaces ante emergencias, especialmente ante situaciones especiales de poca probabilidad, pero de alto impacto.
5. Aprovechar la oportunidad de mejora que ofrece la transformación digital mediante la implantación de nuevas herramientas para incrementar con eficacia y eficiencia la protección de las personas.
6. Establecer mecanismos y canales que posibiliten una comunicación bidireccional directa y eficiente con la ciudadanía.
7. Difusión y Formación en materia de Emergencias y Meteorología para la ciudadanía y para los servicios del Sistema Vasco de Atención de Emergencias.

Todo ello, incorporando una perspectiva de género con el objetivo de promover la igualdad de mujeres y hombres en el ámbito de la protección civil y emergencias de acuerdo con los ejes de actuación contenidos en el VII Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAE.

5. Programa Procesos Electorales

En lo que al ámbito electoral se refiere, el objetivo fundamental es organizar y gestionar los procesos electorales al Parlamento Vasco. Además, le corresponde el seguimiento de todos los procesos electorales que tengan incidencia en la representación política de los vascos.

Para el ejercicio 2024 se prevén las siguientes acciones:

1. Organizar y gestionar las próximas elecciones al Parlamento Vasco.

2. Estatuko oinarriko hauteskunde-araudiaren eta hauteskunde-legedi autonomikoaren aldaketa azterzea eta hari jarraipena egitea.
3. Hauteskunde-prozesuaren kudeaketan, logistikan eta garapenean berrikuntzak sartzea.
4. Alderdi politikoen ohiko funtzionamendurako gastuei aurre egiteko urteko diru-laguntza soziopolitikoak banatzea.
5. Hauteskundearen arloko azterlanak eta analisiak garatzea.
6. 2024ko ekainean egingo diren Europako hauteskundearen jarraipena.

6.- Meteorologia eta Klimatologia Programa

2024ko ekitaldia estrategikoa izango da iragarpen meteorologikoa eta zaintza sustatzeko, bi zerbitzu horiek larrialdiei aurre egiteko eta larrialdiak kudeatzeko oinarriko zerbitzu publikoak diren aldetik. "Euskal Meteorologia Agentzia, SA" Sozietate Publikoa martxan jarriko da eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren bitarteko propietat hartuko da; eta horri esker, beste sail edo zerbitzu batzuetako beharrei emango dien erantzuna sendotuko da eta Euskalmeten herritarrenganako proiektzioa eta zerbitzu publikoa izateko bokazioa indartuko dira.

Aldi berean, hauetan guztietan aurrerapausoak ematen jarraituko da: sare hidro-ozeano-radio-meteorologikoa integratzen, zabaltzen eta hobetzen; beste sail eta administrazio batzuekiko lankidetzan; informatizazioan; informazioaren erabilgarritasunaren sustapenean, gardentasunaren eta datu irekien gidalerroei jarraituz; eta, bereziki, "meteo abisuak/gizartearen gaineko inpaktua" binomioaren operatiba eta koordinazioa larrialdien ikuspuntutik hobetzen.

7. Joko eta Ikuskizunen Programa

2024. urtean zehar, eta behin Hezkuntza Sistema makinen baldintzak eta ezaugarri teknikoak arautzen jolasa, interkonexio-baldintzak eta beharrezko sistemak kontrola eta ikuskapena egiteko, bertan ezarritakoa.

Agindu bat garatuko da, zeinaren bidez joko-lokaletan ezarritakoa argitaratu eta aplikatuko da gure sistema informatikoaren barruan.

2024, 2025, 2026 y 2027rako EHUrekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatuko da, "Jokoaren Euskal Behatokia"ri datuak ematen (txostenak, inkestak, adierazleak...) jarraitzeko. Behatoki hori, jokoaren egoera eta bilakaera begiratzen duen organoa den aldetik, lagungarri gerta dakieke administrazioei zein enpresa operadorei erabakiak hartzeko eta etorkizuna planifikatzeko orduan.

Unean uneko egoeratik egoki irizten diren ad-hoc azterlanak ere egingo dira.

2. Seguimiento y análisis de la reforma de la normativa electoral Estatal básica y de la legislación electoral autonómica.
3. Innovación en gestión, logística y desarrollo del proceso electoral.
4. Reparto de subvenciones sociopolíticas de carácter anual para gastos de funcionamiento ordinario de los partidos políticos.
5. Desarrollo de estudios y análisis en el ámbito electoral.
6. Seguimiento de las elecciones europeas a celebrar en junio de 2024.

6. Programa Meteorología y Climatología

El ejercicio 2024 se plantea como estratégico en el impulso de la vigilancia y la predicción meteorológica como servicios públicos básicos volcados en la atención y gestión de emergencias. Así, la puesta en marcha de la Sociedad Pública "Agencia Vasca de Meteorología, S.A.", junto con su consideración de medio propio de la Administración General de la Comunidad Autónoma, afianzará la respuesta a las necesidades de otros Departamentos o servicios y reforzará la proyección y la vocación de servicio público sobre la propia ciudadanía.

En paralelo, se seguirá avanzando en la apuesta por la integración, ampliación y mejora de la red hidro-océano-radio-meteorológica, en la colaboración con otros Departamentos y Administraciones, en la informatización, en el fomento de la usabilidad de la información siguiendo las directrices de transparencia y apertura de datos y, en especial, en la mejora operativa y de coordinación del binomio "avisos meteo / impacto en la sociedad" desde un punto de vista de Emergencias.

7. Programa Juego y Espectáculos

Durante el año 2024 y una vez publicada la orden por la que se regulan los requisitos y características técnicas de las máquinas de juego, sus condiciones de interconexión y los sistemas necesarios para su control e inspección, se procederá a la aplicación de lo establecido en la misma.

Se procederá al desarrollo de una orden por la que se regulen los locales de juego, se publicará y se aplicará lo establecido en la misma dentro de nuestro sistema informático.

Para el año 2024, 2025, 2026 y 2027 se firmará un convenio de colaboración con la UPV para seguir dotando al "Observatorio Vasco del Juego" de aquellos datos (informes, encuestas, indicadores...) y como órgano que vigila la situación y evolución del juego, ayude tanto a las administraciones como a las empresas operadoras en la toma de decisiones y planificación de futuro.

Se realizarán también aquellos estudios ad-hoc que se estimen oportunos por la situación existente.

2024an Big-Data (Jokodata) sistema garatuko da, informazioa masiboki kargatuz, ustiapenerako. Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren beharren arabera.

2024an bosgarren aldiz egingo da dirulaguntza-deialdia, jokoarekin arazo patologikoak dituzten pertsonekin lan egiten duten irabazi asmorik gabeko entitateei zuzenduta.

Azkenik, jokoaren zein ikuskizunen arloan tasa berriak ezarriko dira, 2023an egindako berrikuspenean oinarrituta.

Langileak ezarritako murrizketak betetzen direla zainduko da. 17/2019 Erregelamendua.

Kiroleko indarkeria, arrazakeria-adierazpenak, xenofobia eta, oro har, intolerantzia-jokabideak desagerrarazteari dagokionean, 2024an horren inguruko informazioa ematen jarraituko da eta, aldi berean, legez kontrako jarrerak eta jokabideak jazarriko dira eta kirol-klub, kirol-sozietate anonimo, kirol-federazio eta jarraitzaileen kolektiboekin koordinatuko dira kiroleko indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurka borrokatzeko.

Azkenik, jokoaren zein ikuskizunen arloan tasa berriak ezarriko dira, 2023an egindako berrikuspenean oinarrituta.

8. Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren Programa

Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda hitzarmenaren esparruan Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren Europako funtsekin Eraikin Publikoen Birgaitzea Bultzatzeko Programa (PIREP) gauzatzeko, Segurtasun Sailak 2024an egin beharreko jarduerak Donostiako Ertzaintzaren Ertzain-etxeari dagozkio, inguratzailea birgaitzeko eta energia-ekipamendua hobetzeko.

9. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia Programa

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia funtsezko pieza da Segurtasun Publikoaren Euskal Sistema eraikitzeko eta finkatzeko, eta sistema osatzen duten kolektiboen hautaketaren eta, batez ere, prestakuntzaren eta garapen profesionalaren bidez egiten du. Segurtasun eta larrialdietako kidegoetako profesionalek beren lana profesionaltasunez, balio egokietan oinarrituta eta egungo gizartearen aldaketetara eta beharretara etengabe egokituta egin dezaten gaitasunak lortzen saiatzea du helburu.

10. Euskal Zibersegurtasun Agentzia Programa

Durante el año 2024 se desarrollará el sistema de Big-Data (Jokodata), haciendo la carga masiva de información para la explotación de la misma según necesidades de la Dirección de Juego y Espectáculos.

En el año 2024 se hará una quinta convocatoria de subvención a entidades sin ánimo de lucro que realizan trabajos con las personas que tienen problemas patológicos con el juego.

Por último, es posible que se establezcan nuevas tasas tanto en juego como en espectáculos basadas en la revisión efectuada en 2023.

Se vigilará porque se cumplan las restricciones impuestas por el reglamento 17/2019.

En cuanto a lo que tiene que ver con la erradicación de la violencia, las expresiones de racismo, xenofobia y en general las actitudes de intolerancia en el deporte, en el 2024, se va a continuar con la información en este sentido, a su vez, se perseguirán actitudes y conductas ilícitas y se coordinarán con los clubes, sociedades anónimas deportivas, federaciones deportivas y colectivos de seguidores en materia de lucha contra la violencia, el racismo, la xenofobia y la intolerancia en el deporte.

Por último, es posible que se establezcan nuevas tasas tanto en juego como en espectáculos basadas en la revisión efectuada en 2023.

8. Programa Mecanismo de Recuperación y Resiliencia

En el marco del Convenio con el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana para la ejecución del Programa de Impulso a la Rehabilitación de Edificios Públicos (PIREP) con fondos europeos del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia -MRR, las actuaciones a llevar a cabo desde el Departamento de Seguridad en 2024 se corresponden con la Comisaría de la Ertzaintza de Donostia para la Rehabilitación de la envolvente y mejora equipamiento energético.

9. Programa Academia Vasca de Policía y Emergencias

La Academia Vasca de Policía y Emergencias es una pieza esencial en la construcción y consolidación del Sistema Vasco de Seguridad Pública, y lo hace a través de la selección y sobre todo de la formación y el desarrollo profesional de los colectivos que integran el sistema. Su finalidad es procurar la adquisición de competencias para que las personas profesionales de los cuerpos de seguridad y emergencias, lleven a cabo su tarea con profesionalidad, fundamentada en valores adecuados y con la adaptación constante a los cambios y necesidades de la sociedad actual.

10. Programa Agencia Vasca de Ciberseguridad

Zibersegurtasunaren Euskal Agentzia euskal sektore publikoan bere eskumeneko informazio-sistemen zibersegurtasuna sustatu eta koordinatzeaz arduratzen den organoa da eta sare elektronikoen segurtasunaren arloan, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren, haren administrazio publikoaren, herritarren eta haren enpresa-sarearen zibersegurtasunaren eta garapen digital seguruen arloko gaikuntza babestu eta bultzatzeaz arduratzen da.

La Agencia Vasca de Ciberseguridad es el órgano encargado de promover y coordinar la ciberseguridad en el sector público vasco en el ámbito de la seguridad de los sistemas de información y de las redes electrónicas de su competencia, y apoyar e impulsar la capacitación en ciberseguridad y el desarrollo digital seguro de la Comunidad Autónoma Vasca, de su Administración pública, de su ciudadanía y de su tejido empresarial.

PROGRAMA

2211 SEGURTASUNA. EGITURA ETA LAGUNTZA

PROGRAMA

2211 ESTRUCTURA Y APOYO DE SEGURIDAD

ARDURADUNA

SEGURTASUNA

LEHENENGO LEHENDAKARIORDEA ETA
SEGURTASUNENKO SAILBURUA
ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN SAILBURUORDEA

RESPONSABLE

SEGURIDAD

VICELEHENDAKARI PRIMERO Y
CONSEJERO DE SEGURIDAD
VICECONSEJERA DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS

MEMORIA

Egitura eta Laguntza Programak modu integratzen biltzen ditu emandako jardun-esparruak koordinatu, kudeatu eta babesteko behar diren ekintza administratiboak. Hain zuzen, berauei esker Segurtasun Sailaren barruan dauden mota finalistako programen helburuak bete daitezke.

Kanpoko harremanetarako zein barruko organoen arteko harremanetarako, koordinazio zentro bat egon behar da eta horri erantzuten dio programa honek. Barruko organo horiei babesa eta laguntza ematen dizkie ertzainak ez diren langile funtzionarioen kudeaketan eta zerbitzu komunetan arloan, baita aholkularitza juridikoaren arloan ere.

Lehenengo Lehendakariordea eta Segurtasuneko sailburuaren Kabineteko Zuzendaritza

Lehenengo Lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren Kabineteko Zuzendaritza laguntza zuzeneko organo bat da eta haren eginkizunak dira aholkularitza ematea, eta azterlanak eta analisiak egitea. Testuingurua hori izanda, Zuzendaritza horri dagozkio sailburuarentzat informazioa eta dokumentazioa prestatzea; saileko beste zuzendaritza-organoen batzuen eginkizunak koordinatzea eta horietan laguntzea, eta horren barruan sartzen dira dagozkion ondasunak eta zerbitzuak hornitzea, eta Ertzaintzaren Musika Bandaren ekitaldiak.

El Programa Estructura y Apoyo concentra, con carácter integral, el conjunto de las acciones administrativas precisas para coordinar, gestionar y apoyar las áreas de actuación encomendadas, que hacen posible el cumplimiento de los objetivos de los programas de tipo finalista que se integran en el Departamento de Seguridad.

Este programa responde a la necesidad de que exista un centro de coordinación, tanto en lo referente a las relaciones externas, como entre los distintos órganos que lo constituyen a los que presta cobertura y apoyo en las áreas de gestión de personal funcionario no ertzaina y servicios comunes, así como de asesoría jurídica.

